

Ernioko marka haustera

Garinek dauka:
1:30:14 ▶ 3



Harri Jaiaren usadio zaharra berritu dute Bedaion

FESTA ▶ Festa giroan pasatu zuten atzoko eguna:
meza, bazkaria, trikitilariak, bertsolariak, afaria... ▶ 5



Meza ondoren hamaiketakoan bildu ziren bedaiotarrak elkartean, trikitilari eta bertsolariekin. NOELIA LATABURU



IRATXE ETXEBESTE

‘Peiremans+’, galtzaileei eskainitako disko berria

TOLOSA ▶ Bonberenea Ekintzak aurkeztu du;
Gorka Urbizu, Txiki eta Imanol Ubeda dira
proiektu berriaren partaideak ▶ 2

Errementari kalea z/g
TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30
LENTZERIA

NEREA
1952

AZPIKO ARROPA
Pijamak, bainujantziak,
azpiko arropa

EGURREZKO ALTZARIAK:
GAZTAINONDOA, GEREZIA ETA HARITZA



Gaurko diseinu
eta kolore berriak,
beti egurrean.
www.lasao.com



Lasao industrialdea • 20730 **AZPEITIA** • 124 Postakutxa
Tel.: **943 15 11 82** • Faxa: **943 15 10 98**
E-mail: informacion@lasao.com

MUSIKA ▶

«Galtzaileei eskainitako lana»

Bonberenea Ekintzak zigiluarekin, lehen diskoa aurkeztu zuen atzo Peiremans+ taldeak Donostian

IRATXE ETXEBESTE

«Aspalditik ari ginen esaka noizbait elkarrekin lanen bat egin behar genuela, eta Bonbereneakoen deia akulu bat izan zen horretarako prest jartzeko». Hitz horiekin egin zuen, batez ere Nafarroako Berri Txarrak taldeko abeslari izateagatik ezagun den Gorka Urbizuk, Peiremans+ taldearen disko berriaren aurkezpena, atzo, Donostiako Koldo Mitxelena kulturuneako aretoan.

Bonbereneako kide Patxi Muñoak labur-labur hitz egin zuen Peiremans+ taldeari lan berria argitaratu emateko egindako gonbitaz: «Bonberenea inguruan ibilitakoak izan, eta lagunak ditugulako planteatu genien proiektua Gorka Urbizuri eta Imanol Ubedari bere egunean, eta hasiera-hasieratik prest agertu ziren». Biek ala biek, Muñoak eta Urbizuk, Bonbereneatik sortutako proiektuak aurrera eramatea «garrantzitsua» dela nabarmenduz hasi zuten aurkezpena, eta gisa horretako lanak kaleratzeko ematen duen «poza» aiputan izanik, «bidenabar, Bonbereneakoen lana bultzatze» balio dutela zioen Berri Txarrak taldeko kideak.

Peiremans+ taldea osatzen duten hiru musikariek badute beren taldea lehendik, eta, horrengatik, diskoa prestatzerakoan «etxeko lanak ondo eginda» elkartzen zirela adierazi dute: «Hastapen batean Imanol eta biok hasi ginen lanean; gutako bakoitzak sortutako kantuen grabaketak egiten zituen etxean, eta ondoren beste teari pasatzen genizkion ideia horiek», azaldu du Urbizuk.

Kashbad-eko Txiki geroago lotu zitzaion Ubedari eta Urbizuri, eta Bonberenean hasi ziren elkartzen entseatzeko. Hala, osatzen duten taldeekiko urrundu nahi zutela, eta Peiremans+ «mortasun propioko» proiektua izatea nahi zutela esan dute hirurek. «Bakoitzaren estiloa islatzen da kantu bakoitzean, eta helburu hori lortu dugu: gustura gaude Peiremans+-ekin», dio Ubedak. Kantuen hitzei buruz galdetu, berriz, zera diote: «Gure diskurtsoan sartzen diren letrak dira: gure kezak, bizi-pozak... Eta kanturen batean gure buari egindako kritikaren bat ere badago».

Peiremans+ disko berriak bost kantu baino ez ditu. «Ibilbide luzeko lana egitea ez genuen nahi, bakoitzak konpromiso ugari dituelako bestela ere. Hori dela-eta bost kanturekin osatutako diskoa kaleratzea nahikoa zela iritzien proiektua aurrera eramaterakoan, eta agian laburregia geratu zaigu lana, baina modu horretara aukera genuen prestatutako kantak era landuagotan egiteko, eta halaxe egin dugu». Aurrerago beste kanturen bat sortzea ez du baztertzeko dena den, hirukoteak.

«Futbolarekin zerikusirik ez»

«Taldea bat egiterakoan askotan arazoak izaten dira izenarekin, baina guk oso argi genuen hasieratik Peiremans+ izango zela», dio Imanol Ubedak. Eta azalpena eman du horren gainean: «Realak bazuen jokalaria bat diru asko ordainduta etorritakoa, baina min hartuta heldu zen, eta ez zuen partidua ofizial bakar bat ere jokatu bi urtetan. Utzita Eibarrera joan zen ondoren, eta handik ere berehala egin zuen alde, eta utzi egin zion azkenean futbolean

jokatzeari». Jokalari haren izena baliatu du hirukoak taldearena jartzeko: Peiremans+.

«Izena hartu dugu, baina gure lanak ez du zerikusirik futbolarekin». Jokalari hari gertatutakoa, ordea, gogorarazi egin nahi izan dute nolabait, «alde gizatiar hori jasoz». Izan ere, Peiremans+ taldekoek diote gaur egungo gizartearen «garaiak» gozesten direla, eta haiek egindako diskoa, berriz, «galtzaileentzat» dela. Diskoko orrialdeetan ere gauza bera nabarmendu nahi izan dute Txikik, Urbizuk eta Ubedak, esanez, lana «galtzaileei eta zorritxarrak jota dauden lagunei eskainia» dagoela.

Peiremans+ taldeak zuzenean aurkeztuko ditu bost kantu horiek ekainean. Kontzertuetarako kanpoko taldeen bertsioak ere prestatuko omen dituzte, eta, agian, beste kanturen bat ere sortuko dute, «askotan, kantu berriak egitea bertsioak prestatzea baino errazagoa delako». Lehen diskoa prestatzerakoan Bonberenean izan duten «giro on eta jator» berarekin irtengo dute jendearen aurrera. Hori agindu du Peiremans+-ek.

PEIREMANS+ ▶



Disko berriaren azala. HITZA

TALDEA

Kideak. Hiru lagunek osatzen dute:

- ▶ Txiki Peiremans+: bateria.
- ▶ Ima Peiremans+: kitarra eta ahotsa.
- ▶ Gorka Peiremans+: baxua, kitarra eta ahotsa.

DISKOA

'Peiremans +'. Horixe da taldeak lehen diskorako hautatu duen izena. Bost kantuz osatutako lana da, eta izenburuak, hauek:

- ▶ *Send flowers.*
- ▶ *Zuretzako hitz ederrak.*
- ▶ *Zer gara gu, nor gara gu, guaytarrak gara gu.*
- ▶ *Beste zera hori.*
- ▶ *Joan zinen.*

Grabaketa. Kantu horiek Bonbereneako estudioan grabatu zituzten, urte hasieran. «Bonbereneako lagunak izan dira lan honen sustatzaileak. Beraiei esker iritsi da zure eskuetara lan txiki hau; txikia bai, baina eskasa ez!, Lazkao Txiki bertsolariak zioen bezalaxe».

Laguntzaileak. Ekoizpen, moldaketa eta grabaketa lanetan hainbat laguntzaile izan dituzte. Honakoak:

- ▶ Soinu hartzailea: Txap.
- ▶ Argazkiak: Screech.
- ▶ Diseinua: Zigor (Onik).
- ▶ Ekoizpen artistikoa: Peiremans+.
- ▶ Argitaratzailea: Bonberenea Ekintzak.

EMANALDIAK

Zuzenekoak. Ekainerako zehaztuta dituzten kontzertuak:

- ▶ 8an: Txantrean, aurkezpen kontzertua.
- ▶ 11n: Bonberenean (Lehiotikan taldearekin).
- ▶ 17a: Arrasaten (Brigada Criminalarekin).
- ▶ 18an: Durangoko Kafe Antzokian (Zea Mays-ekin).



Peiremans+ taldeko kideak —Txiki (Kashbad), Gorka Urbizu (Berri Txarrak) eta Imanol Ubeda (Bide Ertzean)—, atzo, Donostian. IRATXE ETXEBESTE

MENDIA ▶

Ernio 1:30:14, bihar; izena aldatu beharko 2007rako?

Aralarko Adiskideek antolatutako mendi lasterketa korrituko da bihar; 2003an Joan Mari Garinek ezarritako marka haustea izango dute guztiek jomuga

LEIRE MONTES

150 lagunetik gora eman dute jada izena Aralarko Adiskideek antolatutako Ernio mendi lasterketan. Bihar, 10:00etan abiatuko dira guztiak, aldapa gora, Triangulotik. Duela bi urte Juan Mari Garin zizurkildarrak jarritako marka (1:30:14) izango dute jomuga.

2003an hasi zen antolatzen Tolosa-Ernio-Tolosa lasterketa Aralarko Adiskideak elkarteak, 75. urtemuga zuela eta. Bi urtez behin egiteko asmoarekin sortu zuten, gainera. 2:07:14 izena jarri zioten probari, Joxe Mari Urteaga tolosarrak 1944an egindako marka oroituz. 60 urteren ondoren, 37 minututan jaitsi zuen Garinek. Eta aurten berak egindako denborarekin deitu diote lasterketari.

20 kilometroko lasterketa da Erniokoa, eta 1.000 metroko desnibelari aurre egin behar izango diote lasterkariak. Ibilbidea markatu dute antolatzaileek, azkarrena haien ustetan: Berrano, Martin txiki, Malako eta Kupitu; dena den, bakoitza nahi duen tokitik igo eta jaitsi ahal da. Lau anoa guner jarriko dituzte: 5., 10. eta 15. kilometroetan, eta helmugan. Ibilbidea osatzeko gehieneko denborak ere ezarri dituzte: 2 ordu gurutzaraino, eta 3 ordu eta erdi proba osorako; denbora horiek gaingaitzen dituen lasterkaria antolakuntzaren babesetik kanpo geratuko da, eta ez da kontuan hartuko sailkapenerako. Sari banaketa 13:30:00ean izango da, Trianguloan. Igarondo igerilekuan dutxa zerbitzua egongo da.

250 parte-hartzaileko muga jarri dute Aralarko Adiskideek, eta gutxienez 200era iristea espero dute. Oraindik izena eman daiteke. Tolosaldea Tourren (Santa Maria plaza, Tolosa. 943 69 74 13. tour@tolosaldea.net), 10 euro ordainduta. Bihar bertan ere izena emateko aukera izango da Trianguloan, 09:15ak baino lehen.

HITZA sariak

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK ere bat egin nahi izan du kirol festa honekin, eta present izango da Ernio mendi lasterketan. Tolosaldeko eta Lei-

tzaldeko lehendabiziko emakumezkoak eta gizonezkoak HITZA saria jasoko dute. Txapelketa irabazten duen emakumezkoak eta gizonezkoak 500 euro eta txapela jasoko ditu; bigarrenak 300 euroekin sarituko dituzte; hirugarrenak 200 euro jasoko dituzte; laugarrenak 100 euro; eta bosgarrenak 50 euro.

2003an Juan Mari Garinek irabazi zuen gizonezkoetan, Arkaitz Zamakona izan zen bigarren, eta Xiril Alvarez hirugarren. Emakumezkoetan, Maider Mendia txapelduna, Isabel Casado eta Rosa Lasagabaster igo ziren podiumera. 97 lagunek eman zuten izena, eta 87 iritsi ziren helmugara epe barruan. Ikusmin handia piztu zuen probak, eta jende askok animatu zituen korrikalariak ibilbidean. Eguraldia lagun izango dutelakoan, aurten ere parte-hartze handiarekin eta giro onean egingo dela espero dute antolatzaileek.

JUAN MARI GARIN ▶ 1. EDIZIOKO IRABAZLEA

«Ernio nire mendia da; bereziki motibatzen nau etxean aritzeak»

Ernio mendi lasterketak aurten «azkarregi» harrapatu duela dio, ez baitago «guztiz forma hartuta». Baina gogotsu da Juan Mari Garin zizurkildarra, Ernio mendi lasterketa «berezia» baita harentzat. «Lan txukuna» ere nahi du bihar ere.

Zaila izango duzue zuk ezarritako marka hobetzea...

Irabazten duenak marka hori hautsiko duela ziur nago.

Ez al duzu, bada, irabazteko asmorik?

Bai, bai, saiaturiko naiz. Baina ez nago duela bi urte bezain saio: lesio batetik oraindik erabat osatu gabe nago, urteak ere ez dira alferrik pasatzen... Gainera, beste hainbat faborito badaude; Errumaniako lasterkari bikain bat, esaterako. Hura ikusten dut nik irabazteko.

Borrokatzeko gogorik ez duzu galdu, dena den.

Lan txukuna egiten saiaturiko naiz. Emaitza edozein dela ere,



Lasterkari bat, maldan gora, Ernio mendi lasterketarako iristear dela. HITZA



HITZA

dena ematen badut, pozik egongo naiz.

Asko entrenatu al zara?

Lasterketa guztietarako ari naiz prestatzen; proba guztiak jarraian datoz orain, eta indartsu egon behar da. Asteazken bitan-edo mendian aritzen naiz, gora eta behera, hankak ohi-tzeko. Errekuperazio saioak ere egiten ditut. Dena den, aurten ez nabil hain indartsu.

Zer oroitzen dituzu Ernio mendi lasterketaz?

Niretzat politena da. Tokia zo-

ragarria da. Eta korritzeko, gainera, oso leku ona da; ez da batera arriskutsua, eta lesionatzeko beldurrik ez du izango lasterkariak. Jende askok ez du oraindik proba ezaiztzen; etortzera animatu nahiko nituzte, asko gustatuko baitzaie.

Berezia al da etxean aritzea?

Ernio nire mendia da. Gogotsu ateratzen duela bi urte. Horrelakoetan animoz ondo aurkitzen duzu zeure burua, eta fisikoki ere nabaritzen duzu hori. Bereziki motibatzen nau etxean aritzeak.

Izango duzu beste lasterketaren bat buruan...

Aizkorri kale egingo dut aurten. Hurrengo asteburuan Zarautzen ariko naiz. Eta abuztu-ko Munduko Txapelketa prestatzen ari naiz. Beteranoetan, krosa korrituko dut, Lasarteko hipodromoan. Orduerako erabat osatu nahi dut. ◀

KULTURA ▶



Amarozko Artisauen emanaldi bat, artxiboko irudian. HITZA

‘Laburra da’, Amarozko Antzerki Artisauekin

Gaur film laburren emanaldia antolatu dute; bihar, ipuin kontalariaren saioa

L. MONTES

Antzerki lanak entseatzeko eta prestatzeko dihardute ikasturte osoan Amarozko Antzerki Artisauak. Baina beren lana ez da horretara soilik mugatzen. Urtean zehar zenbait ekintzatan parte hartzen dute artistek, eta era guztietako ekitaldiak prestatzen dituzte. Gaur eta bihar, esaterako, festa giroa jarriko dute beren auzoan, Amarozkoan. Film laburren emanaldiak eta ipuin kontalariak antolatu dituzte, eta «haurrak zein helduak ospakizunetan parte hartzera animatu» nahi dituzte.

Gaur, film laburretaz gozatzeko aukera izango dute Amarozko Auzo Etxera joaten direnek. 18:00etan, umeentzako saioa izango da; Antzerki Artisauak azaldu dute, «freskagarriak, fruitu lehorrak eta bestelako modak dituzten eskainiko dizkiegu haurrei». Helduentzako saioa, berriz, 22:00etan hasiko da, leku berean. «Kafea eta pastak» banatuko dizkiete ikusleei, hauek ere dohainik.

Bihar, bestalde, haurrak izango dira berriz ere protagonista Amarozko auzoan, ipuin kontaketa antolatu baitute Artisauak. Idoia Sanchez tolosarrak etxeko txikiak alaituko eta harrituko ditu bere kontakizunekin. Joan nahi duenak 18:00etan Auzo Etxean agertu besterik ez du.

JON TAPIA ▶ PRESO POLITIKO OHIA

«Abertzaleon eskubide politiko eta zibilak ez daude bermatuak»

Bi aste betetzen dira gaur Jon Tapia zizurkildarra espetxetik atera zela, 22 urte preso eman ondoren

IMANOL GARCIA

«Orain nire herrian, Euskal Herrian bizi naiz, lagunarte goxan bizi naiz, baina hala ere presoak gogoan eta zer esanik ez bizi emateraino borrokatu zuten borrokakideak. Bihoakie hemendik nire oroimenik bihotzkorrena. Preso eman ditudan 22 urteetan, nire lagunengandik eta familiartekoen gandik jasotako maitasuna, babesa, laguntza, elkarbidetza, ezin hobekak izan dira eta eskerrik bihotzkorrenak igorri nahi dizkiet, nire buru-bihotzean jarraituko dutelako». Agur honekin hasi du Jon Tapiak elkarrizketa. Bi aste pasa dira Puerto Santa Mariako espetxetik atera zela. Aurretik Carabanchel, Herriera de la Mancha, Alcalá de Henares, Cartagena, Córdoba eta Las Palmas del Salto del Negro espetxeetan egon zen.

Egoera berrira egin al zara?

Hasiera batean ohitzea ez da batere erraza. Kontuan izan behar da espetxean eguneroko monotonian bizitzea dela. Beti gauza jakinak egiten dira eta hori 22 urteetan. Hona etorri eta sekulako aldaketa da. Beste bizimodu bat da. Goizean jaiki eta batzuetan galduta bezala sentitzen naiz. Lehengoko monotoniatik at zaude eta hasieran agobio pixka bat sentitzen duzu. Kalera aterata, eromen bat da askotan. Eguneko zirkulazioa bikoitza izango da. Nahastu egiten zara, baina pixkanaka ohitzen goaz.

Borrokaldi ugari egin zenuen preso emandako urteetan. Nola bizitu zenituen?

Borrokaldi asko egin genituen, borrokaldi luzeak. Borroka egin dugu hasiera hasieratik. Azpimarratuko nituzke Salto del Negron egindako hamar urteak. Hara iritsi orduko konturatu nintzen bizi baldintzak oso tamalgarriak zirela. Bidegabekeria pila bat jaso genituen beraien aldetik eta horri aurre egiteko, burutu genituen

lau gose greba basati, tartean egarri greba bat ere bai. Ez genuen elikagairik hartzen eta 17 bat egun serumarekin egin genuen. Azkenean gure eskakizunak onartu zituzten.

Zer eskatzen zenuten?

Eskakizun normalak. Adibidez binaka modulueta egotea, gaur hartan bisean bisak izatea, lagunengandik bisak onartzea... Gure duintasunari zegozkienak ere eskatzen genituen. Edozein tokitara ateratzeko indarrez biluztarazten gintuzten, guk ez baikenuen nahi. Tamalez, beti gertatu da, ez dela nahikoa arrazoi izatea: bi edo hiru hilabetetara egoera berdina bueltatzen zen. Borrokatu genuen akordioak lortzeko eta baita akordio horiek betetzeko ere. Dinamika horretan sartu gintuzten eta horrela urte batzuk eman genituen. Horrez gain, astebeteko gose greba pila bat egin genituen.

Liburu bat idatzi zenuen espetxeko esperientzia bilduz. Idazteak balio izan zizun preso emandako denbora arinagoa izateko?

Kartzelaldi osoan oso komenagarri da terapia gisa hartutako aktibitate batzuk egitea. Niretzat bat zen bertsoak idaztea eta olerkiak egitea, nire sentimenduak uneoro adieraztea. Beste garrantziko gauza bat da kideekin ahalik eta harreman sakonena mantentzea. Eta nire kasuan, goizero Euskal Herriko mendiak nituen gogoa. Eta nire ziegatik Erriora, Txindokira, Andantzara eta abar pauso erdi baten tartea besterik ez zegoen nire goiz ametsetan. Ariketa fisikoa ere egiten nuen. Oreak fisiko eta psikologikoa mantentzeko. Azken finean norberaren autodefentsarako zen.

Bisitak jasotzea bizipoza izango zen, ezta?

Guretzat zozagarriena izaten zen larunbata. Goizean ilusioarekin jaikitzen nintzen, banekielako Euskal Herriatik baten-



I. GARCIA

bat etorriko zela: lagunartekoak zirela, familiartekoak zirela... Ni preso pribilegiatua izan naiz. Beti izaten nuen bisita. Eta horiei eskerrak eman besterik ezin dut egin. Betiko izango dira nire buru-bihotzean.

Ongi etorri eta omenaldi berroak izan zenituen.

Sekulako ezustekoa hartu nuen. Bai iritsi nintzen egunean bai omenaldian. Ez nuen espero hainbeste jende. Nire lagunek oso ondo antolatuta zuten eta sekulako babesa eta maitasuna sentitu nuen. Ni ere neurri batean saiatu nintzen eurei ere helerazten maitasuna, beraiak merezi baitute omenaldirik bihotzkorrena. Preso egon naiz, baina eurek ere hein batean preso egon dira, niri begira egon baitira.

Orain gutxi euskal preso politikoek borrokaldea egin duzue Euskal Herriatzen eta estatus politikoa eskatuz. Zein da presoen zeregin gatazkaren konponbidean?

Gatazkaren konponbidean presoek sekulako papera jokatu dezakete. Presoak beti daude borrokan. Han egotearekin bakarrik ere nolabaiteko borroka mantentzen da. Beti jartzen da zalantzan sistema eta beti aldarrikatzen da euskaldun abertzale bezala zure tokia ez dela hura, zure tokia Euskal Herriaren dagoela. Gaur egun eta betidanik, presoen kontzientzia, duintasuna eta euren euskal herritartasuna bizi bizirik irauten du.

Espetxean emandako urteetan aldaketarik ikusi al duzu egoera politikoan?

Alde batetik, frustrazio puntu bat ematen dit abertzaleen onerako aurrerapausorik ez ikustea. Gehiago esango nuke, errepresioa areagotu egin da. Alderdien legea dela, atxilotak gero eta ugariagoak, preso-erregimenak baldintzak lasgarriak... Zenbait preso espetxeetan ustel daitezke nahi dute. Egoera oso larria ikusten dut.

Eta etorkizuna?

Azken hauteskunde hauetan ilusio berezi bat sortu zuen gutxienez botoa emateko zerrenda bat egotea. Boto baliogabeak ez zuten hainbeste ilusio ematen. Maila horretan zerbait irabazi dugu. Noski, borrokaren bidez. Baina kontua da geroa begira, demokrazia eta pakerako bidea ireki behar dugula. Justizian oinarritzen den pakea. Abertzaleen eskubide politikoak eta zibilak zoritxarrez oraindik ez daude bermatuak. Hori errealitate bat da. Ez daukagu erabakitzeko eskubiderik. Gatazka konpontzeko lurraldetasuna eta autodeterminazioa eskubidea onartuak egotea ezinbestekoak da.

Hemendik aurrera eguneroko bizitza nola antolatuko duzu? Hasteko, oinarritzko gauzak egin behar ditut. Kartzelako osasun zerbitzua oso txarra da. Nire kasuan, hortzaginak birrinduak ditut. Txuletak jateko gai ez naiz, esaterako. Joan naiz zenbait hortz kliniketara eta 18.000 euroko aurrekontua egin didate. Hori da espetxeari esker ordaindu behar ditudan peajeak. Bestela ere, osasun azterketa orokorra egin beharra daukat.

ADUNA ▶

II. Muxkil Pilota Txapelketako ligaxka

II. Muxkil Pilota Txapelketako ligaxka jokatu da asteburu honetan Adunako frontoian. Txapelketako bikoteak zozketa bidez atera dira: A multzoan, Alain Rezola eta Eneko Zabala, Axier Iraola eta Gari-koitx Garin, eta Mikel Elola eta Ekaitz Otegi; B multzoan, Unai Iraola eta Xabier Agirre, Xabier Zabala eta Julen San Sebastian, eta Eneko Elola eta Iker Iraola. Bihar eta etzi izango dira partidak, 11:00etan. Multzoetatik lehengo biak pasatuko dira eta hurrengo asteburuan finalerdia eta finala izango dira.

PILOTA ▶

HITZA Pilota Txapelketako emaitzak

Herenegun Bidanien jokatu-tako HITZA Pilota Txapelketako kadeteen emaitzak: Errazkin 18-Pagola 16; Garaialde 1-Artola 18; Ibarguren 18-Urruzola 5; Agirrezabala 18-Garmendia 11; Muñoz 1-Goi-koetxea 18; Sarasola 18-Arakistain 2; Irastorza 1-Arratibel 18.

VILLABONA ▶

Lau tabernatan lapurreta egiten saiatu dira

Azken hamabost egunetan herriko lau tabernatan lapurretak egiten saiatu dira, horietako batean bi alditan. Bi tabernetan, gainera, barrura sartu eta txanpon-makinako dirua lapurtu dute.

VILLABONA ▶

Eskuz banakako eta erreboteko partidak

Tolosaldeako II. Pilota Topaketaren partidak izango dira asteburuan Amasan. Bihar, 12:30ean, eskuz banakakoa, senior mailako lau t'erdian, Aranburu II. eta A. Galarraga. Etzi, 11:00etan, Lizaso eta Etxeberría; 11:45ean, Arrieta eta G. Galarraga. Etzi ere, Villabonako Errebote Plazan, 10:00etan, Behar-Zana senior taldearen erreboteko partida Donibane Garaziko Goizekoren aurka.

BEDAIO ▶ GIZARTEA

Festa giroan ekiari eskean

Meza, hamaiketako, trikitilariak, bazkariak eta afariak bete zuten eguna

NOELIA LATABURU

Bedaio usadio bilakatu da Ja-sokunde Egunetik hurrengo ostegunean Harri Jai Eguna ospatzea. Belaunaldiz belaunaldi kontatzen denez, urte batean, garai hauetan, kalte izugarriak eragin zituen kazkabarra bota zuten. Bertako baserriarrek uztak galdu zituzten eta etxeetan bai eta baserrietan ere hondamendi izugarriak izan ziren. Gertaera hauei aurre egiteko eta hauek beste behin gerta ez zitezen, herritarrek egun hau aukeratzen zuten erreguteak egiteko, Harri Jai Eguna, alegia.

Bada, aurten ez dute salbuespenik egin eta atzo antolatu zituzten hainbat ekitaldi egun guztian zehar. Jai honen sorreran ekitaldiak meza eta ondorengo prozesiora mugatzen bazen ere, urteak igaro ahal, egunaren egitarauak aldatetarik izan ditu. Horrela, atzo goizean hasi eta gaualdera bitarte luzatu zen jaiak.

Ohiko mezarekin eman zioten hasiera egunari, egun festarako aitzaki bihurtu dena; ondoren, hamaiketako legea egin zuten Artubi elkarteetan. Bertan salda, haragi egosia txorizoarekin, eta nahi adina

edari dastatu ahal izan zuten bedaiotarrek. Hau guztia Mañukorta eta Agirre bertsolarien eta trikitilarien musika alaiak girotuta. Hamaiketakoari bazkariak jarraitu zion, elkartean bertan. Paella eta biribilia saltsan zuten menuan, postrea bertako gazta eta irasagarra zelarik. Arratsaldea ere lagunarteko giroan igaro zuten Bedaioko elkartearen hurbildutakoek, bertsolarien bigarren saioa eskaini baitzuten. Eguna afariarekin amaitu zen.



Bedaioarrak Artubi elkartearen bildu ziren meza ostean. N. LATABURU



Trikitilariak eta bertsolariak hamaiketako alaitu zuten Harri Jai Eguneko festa giro alaietan. N. LATABURU

ALEGIA ▶ KIROLA

Intxurreko infantilak Gipuzkoako Txapelketako final-laurdenetan dira

Bihar jokatuko dute norgehiakoka 11:00etan Alegiako zelaian, Arrasateko taldearen aurka

N. LATABURU

Alegiako Intxurre K. K. E. bere azken txapan da. Gaztetxoek, infantilak alegia, Gipuzkoako futbol txapelketarako sailkatu ziren eta dagoeneko final-laurdenetara ailegatu dira. Gaztetxoek bihar jokatu dute Alegiako futbol zelaian 11:00etan, finalerdietarako

txartela lortzeko neurketa hau; Arrasateko taldea izango dute aurkari. Intxurretik deia luzatu nahi izan dute herritar eta familiarteko guztiek taldearekin bat egin dezaten eta partida ikustera anima daitezten.

Intxurreko lurraldekako mailako mutilek, berriz, bere denboraldia amaitu dute eta agur esan behar izan diote iogoera-



Denboraldi bikaina burutu dute aurten Intxurreko infantilak. HITZA

ren ametsari, izan ere iogoera fasean azkenak izan dira bere taldean. Errazagoa izango dute kadeteek, izan ere, hiru nor-

gehiagoken faltan, zortzigarren postua lortzeko borrokatuko dute, kategorian mantentzea aspaldi lortu zutelarik.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amarozko dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-aiztondo.

Anbulataria.: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Tipi ttpa ald.: 948 631888

▶ Txolarre irrati: 943 69 80 38

▶ Karrape irrati: 948 61 09 14

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Ollarreaga, J. Martin Jose

Iraola 10 (Tolosa). 943 67 24 38

Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta-Iddea. 687 41 00 22

anoeta-idea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegiadea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Abantzea. Behin erabilitako

furgonetarako abantzea salgai.

Interesatuek 653 729 246

zenbakira deitu

Etxea. Beasainen etxea salgai.

Deitu 619 601 111 zenbakira.

BERASTEGI ▶ GIZARTEA

Leitzarango bidea berreskuratu eta txango bat egingo dute

Leitzaranagerako bidea berreskuratzen ari dira Aldin elkarteak antolatuta; bigarren zatia garbituko dute bihar



Pasa den apirilaren 30ean burutu zituzten lehendabiziko garbiketako lanak. HITZA

INÍGO TERRADILLOS

Berastegiko Aldin kultur eta kirol elkarteak antolatuta Berastegitik Leitzaranagera doan bide bat berreskuratu eta garbitzeko lanetan dihardute, bertan txango bat egiteko helburuarekin.

Berastegi eta Leitzarango bai-

lara lotzen dituen bidea da hain zuzen garbitzen ari direna. Izan ere, elkartekoez azaldu bezala «ez da mendiko bidezidor arrunt bat, herri honetako historian zehar gure arbasoek erabilia izan da eta horregatik oso garrantzitsua da guretzat». Horrela, garai batean, artzainek euren abere eta

artaldeei jaten emateko larretara eramateko erabiltzen zuten bide hau. Era berean, langileek burdinoletako, meategietako edo Plazaolako trenbideetako beharretara joateko ere ezinbestekoa zuten bide hau erabiltzea. Berastegitik abiatzen ziren Gorosmendi-ko leporantz, handik Behi-ata-

rira jarraitzen zuten goitik beherako aldapa hasteko. Erloziaga, Sagarmínaga, Errekabeltza eta Egileorko parajeak gurutzatu eta ondoren Mustarzarhar zubira iristen ziren. Leku honetan oraindik ere atzeman daitezke burdinola baten azarnak.

Azken hamarkada honetan ordea, eta askotariko arrazoiak medio, bidea erabat itxuraldatzen joan da. Batzuetan naturak eragin ditu aldaketak, eta beste batzuetan, berri, gizonak.

Garai batean zena berriro ere berreskuratzeko nahiak bultzatu ditu berastegiarrak txango hau egitera. Baina horretaz gain, bada beste arrazoi bat. Izan ere, «berastegiarran mendirako usadioa handia izan da beti», eta horrek zerikusirik handia izan du erabakia hartzerakoan. Horrela Aldin elkarteak Urepele elkartearen laguntzarekin egoera kaxkarraren aurkitzen diren zati hauek berreskuratzen hasi dira.

Lehenengo ekimena pasa den apirilaren 30ean burutu zuten. Kilometro bateko zatia garbitu zuten. Bihar egingo dute bigarrena eta kasu honetan kilometro eta erdiko zatia garbitzeko asmoa dute. Garbitzen eta berreskuratzen ari diren txangoak 10 kilometroko luzera du, 3 orduetan egiteko modukoa da eta 600 metroko desnibela du.

Ekainaren azkenaldera espero dute bidea seinalizaturik egotea, eta horretarako diru laguntzak eskatu dituzte. Jendearen laguntza ere ezinbestekoa izango da.

IBARRALDEA ▶

Nerea Herrarteren ipuin kontaketa gaur

Nerea Herrarterek ipuin kontaketa saioak eskainiko ditu gaur Elduainen eta Ibarren. Ibarren 17:15ean ariko da Kultur Etxean eta Elduainen, berri, 18:30ean hasiko da ipuin kontaketa saioa eta Urdelar biltokian izango da.

IBARRA ▶

Hiri eta landa izaerako ondasun zergak

Ibarra Udaletik herritar zergadun guztiei jakinarazten zaie, 2005ko urteari dagozkion hiri eta landa izaerako Ondasun Higiezinaren Zergaren ordainketak maiatzaren 15etik ekainaren 30era arte egingo direla. Hauek banku eta aurrezki Kutxa laguntzaile izendatuetan egin beharko dira, eta helbideratutako ordainagiriak datorren ekainaren 10ean zergadunak adieraztako kontuetan kargatuko dira. Epea bukatu ondoren, kobraketak premiamenduzko prozeduraz egingo dira, berandutza interes eta guzti, eta sortuko balira, kostoak ere bai.

BELAUNTZA ▶

Josu Iztuetaren ikus-entzunezkoa gaur 20:00etan

Josu Iztueta bidaiari tolosarrak *Miloi bat kilometro lur arras* (1980-2003) izenburupean ikus-entzunezkoa eskainiko du gaur 20:00etatik aurrera Belauntzako Kultur Etxean.

ALEGIA ▶

Jeshmar musika elkartearen kontzertua gaur

Gaur 19:00etatik aurrera eta Alegiako Kultur Etxean, Jeshmar musika Elkarteak eskainita Arragoa-Zapore latinoa kontzertua izango da entzungai. Hirukote erritmikoa dauka oinarrian talde honek eta bere partaideak honako hauek dira: Arantxa Odriozola (ahotsa), Julen Izarra (saxoa), Ixak Oartzabal (perkusioa), Jokin Lakunza (pianoa) eta Mikel Mate (baxua).



Irlandako egoera Euskal Herrikoarekin alderatuz

IBARRA ▶ Herenegun, Tolosaldeko gaztetxeek eta gazte asanbladek antolatuta Gerry Ruddy Irlandako Alderdi Sozialista Errepublikanoko komite nazionalako kidea izan zen Ibarra Gaztetxean hitzaldi tertulia bat eskaintzeko. Hitzaldiaren aurretik Ruddy eskualdeko presoekin bildu zen. Irlandako

presoez bizi duten egoera eta Euskal Herrikoek bizi dutena alderatu zuten horrela. Ondoren tertulia egin zuten «eskubide demokratiko nazionalen aldeko borroka eta sozialismoaren aldekoa, borroka bera da» ardatz hartuta. Ibarrakoaz gain Euskal Herrian hainbat hitzaldi eskaini ditu astean zehar. HITZA

GIZARTEA ▶

Haur, guraso eta eskolak elkartuta, jai

Areso, Leitza, Goizueta eta Aranokoak etorriko dira biharko elkarretaratzera

JAIONE ASTIBIA

Bihar festa eguna dute, Aresoko eta Leitzako haur, guraso eta eskolek ere, izan ere Goizuetatik eta Aranotik etorriko direnekin batera, 6. Topaketa egiteko dute Leitzan, txanda honetan, eta egun beteko egitaraua prestatu dute: «Lau herrietako haurrak eta gurasoak jai giroan elkartzea eta —kasu honetan— Leitza ezagutzea», helburu izanik.

Topaketa hau urtero leku desberdinean antolatuta ohi dute, «hiru herrietan txandaka egiten dugun», zioen zonaldeko Prebentzio Programako teknikariak, «tokatzen den herriko guraso elkarteekin batera», egitaraua osatu eta antolatzeaz arduratzen baita. Aurten Denok bat elkartari egokitu zaio aurrean horretan aritzea, «egunean denok aritzen gara, ordea», argitu zuen bide batez teknikariak.

Eguneko ekintza guztiak, «denon parte-hartzea bulkatzeko pentsatuta» omen daude, horrela nabarmendu nahi izan zuten, horregatik «joko kooperatiboak deitu ditugun», argitu zuten, horietan haurrek ez ezik, «gurasoek ere parte hartzeko», asmatuak izanik.

Bestalde, lau herri horietako haur eta umeez modu askotako ikuskizunak eskainiko dituzte, «guztiak, herri bakoitzeko eskoletan landu dituztenak», ziotenez, eta «oso politik izanen direnak», ziurtatu zuten: Goizueta *Zagi dantza*, Leitzako trikitilariak, Aresoko dantzari tikiak saioa, Goizue-

6. TOPAKETA ▶

BIHAR, LARUNBATA

11:00. Joko kooperatiboak, plazan.

13:00. Kalejira, Goizetako *Zagidantza* eta Leitzako trikitilariekin.

Ondoren. Aresoko dantzari tikiak, plazan.

14:00. Bazkaria, Aurrera elkartean.

16:00. Umeen saioak: Goizuetako eskolako kantariak eta Leitzako Asketa Txiki abesbatza. Udaletxean.

17:00. Antzerkia: *Bizi alai* (Bihar taldea). Udaletxean.

18:00. Txokolate hartzea, plazan.

Ondoren. Leitzako *Ingurutxo*a, dantzatu nahi duen guztiarentzat. Plazan.

tako eskolako kantariak (Aranoko ikasleek ere hemen hartzen omen dute parte), eta bukatzeko, «nahi duen guztiak» dantza egin dezan, Leitzako *Ingurutxo*a izango da Tartean. Bihar taldearen *Bizi Alai* txokongiloak ikusteko aukera izane dute bertan bilduko direnek.

Baina, egun guztian jateko beta ere hartuko dute, bazkarian, norberak eramandakoa, eta arratsaldekoan, txokolate beroa hartuz.

Egun guztian, bestalde, asten zehar ikastetxe guztietako ikasleek egindako marrazkien erakusketa egiten dute, Karrapean. Gaia, topaketa bera izango da.

LEITZA ▶

Plazako XIII. Binakako Txapelketaren hasiera

16 bikotek hartuko dute parte; Unai Onsalo aresoarrak Errekako finala du

J. ASTIBIA

Bihar hasiko da Plazako XIII. Eskuz Binakako Txapelketa, Leitzan: 16:00etan egiten ere, eta hantxe izanen dira txapelketan parte hartuko duten hamasei bikoteak jokoan, zortzi partidu eskainiz.

Arratsaldea bete lan izanen dute beraz. Pilotariak lau taldetan banatuta daude, bakoitzean lau bikote egonez. Horrela aurreneko hiru jardunaldietan, talde berekoen arteko ligaska egiten du, denek denekin jokatu. Asteburu honetako partiduak honako hauek dira: I. Aldaia-U. Olaño/D. Arteaga-I. Zabaleta; J.J. Mariñelarena-J. Larraia/E. Aizagirre-J. Sagastibeltza; J. eta I. Mariñelarena/M. Andueza-M. Agirre; A. eta I. Makazaga/A. Aburuza-J. Arangoa; I. Zaballos-M. Iriarte/I. eta J.J. Zubillaga; E. Andueza-I. Aizagirre/ F. Urkiola-I. Elizalde; P. eta A. Sagastibeltza/I. Alduntzin-J. Sagastibeltza; O. Alduntzin-L. Galartza/C. Zabaleta-M. Telletxea.

Onsalo finalean

Bestalde, Unai Onsalo aresoarrak finala jokatu beharra du, bihar, Erreka txapelketan.

Aurrera taldearen ordezkari, Onsalo, Jabier Eraso du lagun. Biharko finalean, Urtañan eta Orozzen aurka ariko dira, 19:00 etan, Donostebeko pilotalekuan.

ARESO ▶ SOKATIRA

Bina taldek parte hartuko dute 300 eta 320ekoan

Bihar dute lehen jardunaldia Euskal Herriko 4nakako sokatira txapelketan, aresoarrek



Iaz Areson jokatu ziren txapelketako saio batzuk, 8nakakoan. J. ASTIBIA

J. ASTIBIA

Euskal Herriko lur gaineko launakako Sokatira Txapelketa, aurreko asteburuan hasi bazen ere, 280 kiloko eta jardunaldi bakarrekoa, bihar ekinen dio denboraldiari Aresok, 300 kiloko neurrian parte hartuz, Getxoko Fadura, 17:00etatik aurrera jokatu den norgehiagokan.

Esan behar da, gainera, Aresok bi talde osatu dituela, A eta B, orain egiten ari den Euskal Herriko Txapelketa hau launakakoa baita, eta jendea prest zegoelako: «horrela bi aukera izanen ditugun», zioten taldekoek. Prestaketan aritu dira, «lasterka, indarra egiten, tiraldiak...», ziotenez, eta orain, lanari ekiteko aiherrak daude.

Pisu honetan 12 taldek eman dute izena, ondorioz «bi talde-tan banatuko ditugun», argitu zuten atzo, Euskadiko Herri Kirol Federaziotik bertatik, «zoketaz», egunean bertan osatuko direlarik eta multzo bakoitzeko taldeen artean jokatu omen dute norgehiagoka,

TXAPELKETA ▶

Euskal Herriko lur gaineko Sokatira Txapelketan, 300 kiloko mailan, launaka.

Parte-hartzaileak.

- ▶ Areso A (Nafarroa).
- ▶ Areso B (Nafarroa).
- ▶ Gaztedi A (Bizkaia).
- ▶ Gaztedi B (Bizkaia).
- ▶ Gaztedi C (Bizkaia).
- ▶ Goiherri A (Bizkaia).
- ▶ Goiherri B (Bizkaia).
- ▶ Getxo A (Bizkaia).
- ▶ Getxo B (Bizkaia).
- ▶ Nuarbe A (Gipuzkoa).
- ▶ Nuarbe B (Gipuzkoa).
- ▶ Mutriku (Gipuzkoa).

Egutegia.

- ▶ Maiatzak 14: Getxo.
- ▶ Maiatzak 28: Zamudio.

Ondu. 17:00.

biharko saioan. Hurrengo asteburuan, Zamudioko finalean, berriz, multzo bakoitzeko sailkapenaren ariora egiten omen dituzte sailak: aurreneko hiru taldeek jokatu dute batean eta bestean, 4., 5. eta 6. lekue-tan gelditutakoek.

hitza **txokoa** lagunen

HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu

943 30 43 46
(8:30 / 20:30)

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

Astebukaera honetan *Leidorren* emango den 'EL HUNDIMIENTO' filmerako 2 sarreraren irabazlea:

MAITE OTEGI AYASTUY HITZAren harpidedun laguntzaile billabonatarra.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

